



Larregi taldea Arratia bailarako Lemoan (Bizkaia) osatu zuten, hasieran, 2009ko abenduan, hirukotea baina hilabeteetara laukoa bihurtu zen. 2010ean sei abesti zituen maketa argitaratu zuten. Gaztea Irratiko Maketa Lehiaketaren "Entzuleen Saria" irabazi zuten lehen maketa horrekin. "Bidea dugu helmuga" zuen izenburua lehen disko luzeak, 2012an Larregi taldeak berak ekoiztitakoa, gainera. Taldekide aldaketa txikiak izan ditu Larregi taldeak urte hauetan. Musikariak beste taldeetan ibilitakoak dira edo jardunekoak (Exaixu, Zirkinik Bez, Zeinke...). 2014an Azkue Fundazioak antolatu ohi duen Banden Lehiako irabazleak izan ziren eta saria disko bat argitaratzea zen. 2015ean bigarren diskoa: Pantomima. Bitxikeria bada ere, Eskean Kristö taldearekin batera dute entsegu-gela (2013ko Banden Lehiako irabazleak).

Larregi taldearen bigarren diskoa 2015eko apirila, maiatza eta ekainean grabatu eta nahastu du Usurbilgo Higain estudioan Haritz Harreguy teknikariak. Juan Hildalgok egin du masterizazioa Master Tips estudioan (Madril). Diskoari dagozkion diseinuak Bea Sierrak egin ditu. Laguntzaile sorta du "Pantomima" diskoak. Hala nola, Iban (MG Banda) teklatuak eta organoa "Eroalea" eta "Ostruka" abestietan.

ZULOAN

Noiz edo noiz denok sentitu gara zulo baten barruan bezala. Bolada txar horretatik irteteko (arazo pertsonalak, lan-kontuak, maitemina...) norbaiten laguntza behar izaten dugu, esku bat, sostengu bat, gorantza joan eta berriz argia ikusteko. Punk-rock amerikar melodikoaren eragina daukan kantua da.

OSTRUKA

Aspaldiko mitoa da: ostrukak bere burua ezkutatu du beldur denean. Bada, ez. Gezurra da hori. Jendeok, ordea, bai, hori egiten dugu ikusi eta onartu nahi ez ditugun gauzak ikusi nahi ez ditugunean. Urtz taldeko Xabi Camarero abeslariaren ahotsa lagun izan du Larregi taldeak txikitatik. Orain, bere hotsa abesti honetan. Ostruka melodia handiko abesti rock-zalea da.

57

Bizitza honetan gauzak hasi eta bukatu egiten dira. Harreman pertsonalak ere amaitu egiten egiten dira zoritxarrez, eta askotan hori onartzea kostatu egiten zaigu. Miresmen handia Eskoziako Biffy Clyro taldearekiko, "57" kantuak izen bereko abestian du oinarria.

GEZURRA ARI DU

Euri zaparrada etengabea bailitzan, gezurrek eta ustelkeriak egunero bustitzen gaituzte azken urteotan. Metafora horri helduz, disko osoko kanturik bizi eta laburrenetakoa da.

EROALEA

Pianoa eta biolontxeloaren ekarpen dotorearekin, diskoko kantu lasaia da. Bizitzan zenbait pertsonekin lotura berezia izaten dugu, eta gorputz batetik bestera doan nolabaiteko hari eroale eta ikusezin batek batzen gaitu.

ritxi aizpuru (2015eko urriaren 1a)

Agate Amilibia biolontxelo "Eroalea" abestian. Peio (La Txusta de Morta) gitara soloa "Ostruka" abestian. Xabi Camarero (Urtz) ahotsa "Ostruka" abestian. Pello Artabe (Eskean Kristö) ahotsa "Toxikoa" abestian. Iñigo Ibarretxe alboka "Ez zaitetz gelditu" abestian. Bea, Galder, Eneida eta Agate koruak "Zuloan", "57", "Gezurra ari du" eta "Ez zaitetz gelditu" abestietan. "57" abestia Eskoziako Biffy Clyro taldearen "57" kantuan du oinarria.

Larregi taldeak "Pantomima" izena eman dio euren bigarren diskoari. Norbana-koaren, jendartearen gezur ezkutu edo agerikoa, maskara, ustelkeria, faltsukeria, itxurakeria (agerikeria), mozerro zitala, nabarmenkeria, gehiegikeria, handikeria, lerdokeria. Hitz bakarrean laburtuko du Larregi taldeak, pantomima, alegia. Letra gehienak bide horretatik doazkio Larregi taldeari. Beraz, bada disko kontzeptuala esanahi esparruari dagokionez. Larregi taldearen "Pantomima" diskoak rock estiloa erabiliko du nabarmen, baina punkaren hurbilpenak badu lekua, pop-rockak eta hard-punkak duten bezala. Baina abesti guztiei darien estiloa punkaren alde-rik melodikoena da, hor dauka disko honek muina. Abestiek aho bete hortz utziko gaituzte melodietan eta aurkituko dugu Larregi taldearen erantzunaren aldarrikapena.

PANTOMIMA

Pieza instrumental laburra da. Hurrengo abestiari sarrera emateko balio du eta lan osoaren kontzeptua laburbilduko du: eguneroko bizimoduaren pantomima ugari bizi ditugu. Kalean, lagun artean, lantokian, politikagintzan... faltsukeria eta antzerkia eguneroko ogia dira.

MASKARAK

Programazio batzuen laguntzarekin, lan osoko soinu modernoena dakar kantu honek. Itxurakeria eta maskarei buruz hitz egiten du. Izan ere, norberaren gabezia eta beldurrak ezkutatzeko mozerro pila bat janzen ditugu maiz.

TOXIKOA

Disko osoko kantu rockzale eta gordinena. Bizimodu honetan dauden pertsona toxikoen inguruan dihardu. Beraien presentzia, eragin eta diskurtsoarekin kalte baino egiten ez duten pertsonak dira horiek. Eskean Kristö taldeko abeslaria den Pello Artabe lagunak abestu du.

EZ ZAITEZ GELDITU

Diskoari amaiera emateko jai-giroko abesti simple eta eraginkorra. Rock klasikoaren eraginak agerian dira (AC/DC) eta bestetik, Arratian tradizio handia daukan alboka instrumentua. Bere garaian Exkixu taldean (eta gero Gatibun) jo zuen Iñigo Ibarretxek borobildu du mezu autobiografikoarekin datorren abestia.

Iñigo Santos: baxua eta koruak / Unai Santos: gitarra eta ahotsa / Jokin Uriarte: gitarra eta koruak / Markel Atutxa: batera



telf. 618 072 076-026
www.baga-biga.eus / info@baga-biga.eus